



KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ogasun Batzordeak 2013ko abenduaren 19an egindako diktameneko kopuruen arabera, 2014ko ekitaldiko **AURREKONTU OROKORRA**ren proiektuak **35.529.104,61** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan sartu ditugu, UDALAREN aurrekontua, **31.711.604,61** eurokoa, AUKEA erakunde autonomoaren aurrekontua, **1.621.715,11** eurokoa, eta ITURBIDE EGOITZA Erakunde Autonomoaren aurrekontua, **3.403.671,86** eurokoa.

Aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenen arabera egin ditugu Udalaren aurrekontua nahiz Erakunde Autonomoen aurrekontuak, nahiz eta ñabardura hauek egin behar ditugun:

Diru-sarreraren aurreikuspenak kalkulatzeko, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2013ko urtean likidatutako eskubideetatik abiatu gara, itxiera aurrerapenaren datuen arabera, kontuan izanik Ordenantza Fiskaletan sartutako tarifa aldaketak, Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hartutako akordioaren arabera, gutxi gorabehera %2ko igoera izan dutenak, zaborren tasa izan ezik, azken honek %4 inguruko gehikuntza izan baitu..

IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako, oinarritzat hartu dugu orain dagoen informazioa, bai eta beste erakunde batzuek hartutako diru-laguntza konpromisoak ere (Udal Finantzaketako Foru Fondoaren parte-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen balizko desbideratze negatiboak kontrolatu beharko ditugu aurrekontuaren exekuzioa berraztertzeke testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, aurrekontua orekatzea lortu beharko dugu, gastuak murriztuz edo diru-sarreraren igoera osagarri bat bilatuz.

VI. Kapituluak - Ondarea saltzearen aurreikuspenei dagokienez, antzeko hausnarketa egin dugu, izan ere, ondasun higiezinak eta lokalak (Zerrajerakoak eta beste batzuk) saltzeko borondatek datozen estimazioak sartu ditugu, bai eta hirigintza kargetatik eta aprobetxamenduetatik datozen diru-sarrerak ere, guztira 0,29 milioi euro. Aurreikuspenak gauzatzeko, Udaletik kanpoko faktore bat gertatu behar denez aldi berean, hau da, erosketan hirugarren baten interesa edo hirigintza aprobetxamenduak exekutatzeko, Udalak kontrolatzen ez duen aldagaia, eta aurrekontuaren zenbatekoa txiki samarra bada ere, komeni da jarraipena egitea, diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzioan desbideratze esanguratsurik ez izateko.

Gastuen atalean, adierazi daiteke nahikoa dela daukagun aurrekontu kopurua zerbitzuak normal funtzionatzetik datozen eta eskatu daitezkeen obligazioak betetzeari erantzuteko. Dena den, nire iritzian, aurrekontua betetzeko arauak eta horiek ematen dituzten malgutasunak ahalbidetzen dute modu nahiko errazekin ekitaldian sortu daitezkeen gastu desbideratzei 2014ko aurrekontuak egokitzeko.

Pertsonal edo langileen kapituluko gastuei dagokienez, horiek kalkulatu ditugu, termino homogeneotan, 2013ko bukaeran indarrean zeuden ordainketei buruz gehikuntzarik izan gabe, hartarako onartutako lege araudian aurreikusitakoarekin bat.

Gainerako diru-sarrerekin ezin estali daitezkeen gastuak finantzatzeko, Udalaren aurrekontuan jasota dator mailegu bat eskatzea, 1.218.479,97 eurokoa, eta AUKEA eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoen kasurako, beharrezkoa da udalaren ekarpena, 2014ko ekitaldian aurreikusten den defizita estaltzeko, 890.615,11 euro lehenari eta 200.671,86 euro bigarrenari. Diru-sarrera horien bidez hiru aurrekontuak, UDALARENA, ITURBIDE EGOITZARENA eta AUKEARENA, berdintzea lortu dugu.

2014ko ekitaldirako jasota dagoen aurrekontuetako nahiz zorpetze berriko zenbatekoari dagokionez, 1.218.479,97 eurokoa, esan behar dugu, aurreikusitako mailegu berria sinatuko balitz ere (seguruenik egingo ez



duguna, izan ere, estimatu dugu ez dugula behar izango mailegu berririk, 2013ko ekitaldiko itxieran soberakinak sortu direlako), legez finkatutako helburuak bete egingo direla, hots, aurrekontua egonkortzekoa, zor publikoarena eta gastu arauarena. Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan nahiz garapeneko hurrengo legezko araudian ezarritakoak, besteak beste, Gipuzkoako toki erakundeek aurrekontu egonkortasuneko helburuak (zero defizita) aplikatzeari buruzko jarraibidea, zor publikoa (2014rako diru-sarrera arrunten %95ko muga eta %75ekoa 2020an betetzeko) eta gastuaren araua (2013ko gastuari buruz %1,5 gehienezko hazkundera). Hura betetzea jasota dago agiri honekin batera doan eranskin txostenean.

Gaurko egunez, konpromiso kredituak ditugu, 2014ko ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldien kontura onartutakoak, 697.474,45€an, hein batean Udalbatzarrak 2010eko urriaren 7an eta 2013ko abenduaren 17an hartutako akordioetatik datozenak, "Polo de Innovación Garai S.Coop." entitatearen kapital ekarpenari buruzkoak; hura ordainduko da baldin eta Eraikuntzen gaineko Zergarengatik edo Hiri OHZrengatik diru-sarrerak sortzen badira, berrikuntza gune horretan, 332.359,22euroan. Onartutako beste konpromiso kreditu batzuk datoz alde zaharreko eraikinetan intsektuak kendu eta termiten izurritea kontrolatzeko zerbitzua adjudikatzeko abian jarritako kontratazio prozeduratik, 5 urteko aldi batez eta 147.862 euroan, bai eta 2014rako hartutako konpromisoetatik ere, gizarte zerbitzuetako bulego berriko obrei buruz, 181.841,72 €, eta bidegorrirako Anboto kaleko atzealdeko obrei buruz, 29.579,51 €, eta, azkenik, erabilera publikoko zortasuna duen urbanizazio pribatuan egindako hobekuntzengatik Errebueltako bizilagunekin erabakitako diru-laguntzari buruz.

Halaber, aurrekontuak betetzeko arauak jasota dute 2014an konpromisoak hartzeko aukera, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldintza honekin, Gipuzkoako toki erakundeek Aurrekontuen gaineko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eskatzen dituen baldintzak betetzea. Gaur arte onartutako konpromiso kredituen zenbateko txikia ikusirik eta 2014an hartutako konpromiso berrietarako jasotako kasuen ezaugarriak kontuan izanik, esan genezake ez dugula espero arazoak egotea konpromiso kredituen finantzaketari aurre egiteko Udalak duen gaitasun ekonomikoari buruz.

Azkenik, adierazi behar dugu, Aurrekontua onartzeko, Udalbatzarraren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela. Aurrekontua onartzeko hasierako akordioa hartu eta gero, jende aurrean erakutsi behar da akordioa, eta gure Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragarki Taula Nagusian argitaratu 15 eguneko epean; eta epealdi horretan aztertu ahal izango dute interesdunek eta aurrekontuen aurka egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Jende aurrean erakusteko aldiaren erreklamaziorik jaso ezker, hil bateko epean erabaki beharko ditu Udalak.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2013ko abenduaren 19an.

KONTU-HARTZAILEA

2014KO AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA BETETZEA (ZERO DEFIZITA)

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I.-VII. KAPITULUEN BATURA	34.182.935,20 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I.-VII. KAPITULUEN BATURA	34.195.323,64 (*)
	<hr/>
SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA	12.388,44

(*) kalkuluak errezteko, ez da SEC-eko inolako doiketarik egiten, kopuru esanguratsagatiko eragina ez dagoelako

2014RAKO ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA (2014KO ZORRAK EZIN DU GAINDITU 2014KO SARRERA ARRUNTEN %95A)

2014KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA

2014/1/1 SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2014/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOF 3.303.542,64

2014KO MAILEGU BERRIA 1.218.479,97

2014/12/31AN AMORTIZATZEKE GUZTIRA 4.522.022,61

2014RAKO (aurrekont.araberako datuetatik) KONTSOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK 32.637.919,15

% MAILEGUEN ZORRA / KONTSOLIDATUTAKO SARRERA ARUNTAK 13,86

GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETEZE MAILA 2014RAKO

A - 2014 URTEA

1 .Konsolidatutako enplegu finantzarioak (2014ko aurrekontuaren gastuen I - VII kapituluak)	34.182.935,20
2. III.Kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-65.275,93
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)	-4.150.673,64
- Udala - gastu korrontea	1.134.469,15
- Udala -Kapital gastua	1.263.204,49
- Aukea	10.000,00
- Iturbide	1.743.000,00
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa (ikus 2.taula)	<u>-1.828.787,32</u>
5. 2014rako GASTU KONPUTAGARRIA	28.138.198,31

B - 2013 URTEA

1. konsolidatutako enplegu finantzarioak (2013ko aurrekontuaren gastuen I-VII kapituluak)	30.050.060,00
2. Interesen kapituluaren doiketa	-58.100,00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 3.taula)	-2.835.538,00
5. 2013RAKO GASTU KONPUTAGARRIA	27.156.422,00

6.ONARTUTAKO GEHIKUNTZA%1,5
(Gipuzkoako araudia - GAO 2013/11/28)

407.346,33

7. 2014RAKO GASTUAREN MUGA KUANTITATIBOA

27.563.768,33

8.ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (esanguratsuenak)

- OHZ - zerga tasa (%2) 100.000,00

- IGZ (Ibilgailuak) - zerga tasa (%2) 30.000,00

-JEZ - zerga tasa (%2) 30.000,00

(* eragin honetarako,
konpentsatu egiten dira
Fagor S.Koop-eko balizko
murrizketak, 2013an
ikuskaritzatik ateratako ez
ohiko sarrerekin

- Zaborra- zerga tasa (%4) - balioetsitako erag 65.000,00

- Ikuskaritzako 2014rako ez ohiko sarrerak ing 630.000,00

(**) 2013aren bukaeran,
adostasunez sinatutako 7
espediente daudela,
dagoeneko, 358,4 mil €kc
kopuruaz

2014RAKO ARAUDI ALDAKETETAN
ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN
BATURA (***)

855.000,00

(***) onartutako gainontzeko aldaaketak (Ur
tasa, kiroldegia, beste tasa guztiak) ez dira
kontuan hartzen, edo kopuru esanguratsuak ez
direlako edo, tarifaz gain, udal kontroletik
kanpoko elementu batzuk jokoan sartzen
direlako (ur kontsumoak, abonatuena bilakaera,
etab.)

C -2014rako gastu erregela betetzen dela egiaztatzea

2103ko doitutako gastu konputagarria	27.156.422,00
(+) 1,5% baimendutako gehienezko igoera	407.346,23
(+) araudi aldaketetan onarritutako sarrera gehiago	855.000,00
2014rako GASTUAREN MUGA	28.418.768,23
2014KO AURREK. ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA	28.138.198,31
2014AN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA	280.569,92

1.TAULA:2014AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUAK

1-UDALA - GASTU KORRONTEAK		1.134.469,15
- Diputazioa - partehartzea	12.000,00	
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.000,00	
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	17.000,00	
- E.J.- kulturate liburuak	10.000,00	
- E.J.- Liburutegiaren dinamizaziorako	3.000,00	
- E.J.-Ongizateko pertsonalerako laguntzak	40.000,00	
- Diputazioa- Harrera Zerbtzurako laguntza	4.500,00	
- E.J.-Drogomenpekotasunerako laguntzak	28.000,00	
- Diputazioa - Etxez etxeko zerbitzua	248.000,00	
- E.J.- GLL	150.000,00	
- INE - Zentsuaren eguneraketa	350,00	
-HAEE - pertsonal formakuntzarako lag.	15.000,00	
- Diputazioa - Mendi garbiketa	3.000,00	
- Mankomunitatea - Akeiko mantenuaren kontratua	21.000,00	
- Mankomunit. - Udala eskolako kanpainak	8.500,00	
- E.J. - Bake epaitegia	5.700,00	
- E.J.- EBPN laguntza.	32.000,00	
- HABE - Euskaltegia	346.000,00	
- Diputazioa - Euskera	37.000,00	
- Diputación - Gazteria	13.000,00	
- Diputación - Emakume arloko jardueretarako	9.000,00	
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	126.419,15	
- E.J. - enplegua sustatzeko laguntzak	20.000,00	
- Diputazioa - enplegua sustatzeko laguntzak	56.250,00	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK		1.263.204,49
- VII.Kap. (Mendi nekazaritzakoa izan ezik, gainontzeko denak)		
3- AUKEA		10.000,00
- Diputazioa - Igeriketa eta udako kanpaina		
4- ITURBIDE		1.743.000,00
- Ustiapenerako laguntza - hitzartutako tarifak		
5- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUAK GUZTIRA		<hr/> 4.150.673,64

2.TAULA: EXEKUTATU GABEKO GASTUEN DOIKETA (KONTSOLIDATUA)

EKITALDIA	HASIERAKOA	EXEKUZIOA	%EXEKUZ.MAILA	%EXEK.GABEKO MAILA.
2013	33.569.096,02	29.991.960,00	89,34%	10,66%
2011	30.708.474,07	31.808.138,41	103,58%	-3,58%
2012	32.241.155,01	29.553.303,05	91,66%	8,34%
GUZTIRA	96.518.725,10	91.353.401,46	94,65%	5,35%

3. TAULA:2013AN BESTE ADMIN.PUBLIKOAK FINANTZATUTAKO GASTUAK

1. Udal aurrekontuko balioespena	
- gastu arruntak	1.006.638,00
- kapital	69.000,00
2. Aukeako likidazioa	9.900,00
3. Iturbideko likidazioa	<u>1.750.000,00</u>
2013an finantzatutako gastuak GUZTIRA	2.835.538,00